


GIPUZKOAKO BASOEN KOIUNTURA ETA OSASUN EGOERARI BURUZKO TXOSTENA 2020

Gipuzkoako Baso Elkarteak (GEBE)



Abandonatutako basoa zuhaitz-masa osoaren % 16ra iritsi da Gipuzkoan, suteen arriskuak areagotuz

Azken bi urteetan, intsinis pinua zegoen tokian baso jabeek 2.600 hektarea birlandatu dituzte hainbat espezie ezberdinekin: cryptomeria japonica da nagusi

Basoak bertan behera uztea arazo handia bihurtu da Gipuzkoan, eta hori da, gaur egun, Gipuzkoako Baso Elkarteak (GEBE) duen kezka nagusia. Abandonatutako basoak zuhaitz-masa osoaren % 16 hartzen du. Baso misto atlantikoa, teknikoki esaten zaion bezala, hedatzen ari da moztutako larreak edo pinudiak uztearen ondorioz. Gaur egun, Euskadin dauden 37.436 hektarea abandonatuetatik, erdia baino gehiago (19.470) Gipuzkoan daude. Azken 25 urteetako bilakaera kezagarria da: **1996an, abandonatutako basoak 12.223 hektarea okupatzen zituen Gipuzkoan, eta ordutik % 66 igo da.** Gehienak (% 92) jabetza pribatukoak dira.

Basoak bertan behera uztearen arriskuak argi ikusi ditugu Bera, Lesaka eta Aiako Harrietako sutearen ondoren. Kudeaketa gabeko eremuetan suak indarra hartu eta itzaltze lanak asko zailtzen baitira. Egoera kezkagarria da benetan, eta are gehiago klima-aldaketaren agertoki batean, gero eta muturreko fenomeno meteorologikoak iragartzen baititu, haizete beldurgarriak, esaterako.

Gipuzkoan erretako 400 hektareak (100 inguru partikularren esku) eta Nafarroako beste 1.500 "kolpe gogorra" dira guretzat. **"Suteak dira baso-jabeek jasaten ditugun mehatxu nagusietako bat eta horiei aurre egiteko kudeaketa da tresnatrik onena"**, esan du Juan Carlos Berraondo GEBEko presidentek.

Abandonatutako basoak, bestalde, sua zabaltzen laguntzen du. Zuhaitz-masen kudeaketa falta mehatxu erreala da, eta Gipuzkoako Baso Elkartek urteak daramatza horri aurre egiten. Ez bakarrik sute-arriskua handitzen delako, baita baliabide naturalak alferrik galtzen direlako eta flora eta fauna deuseztatzen direlako ere.

Horren aurrean, baso-jabeen birlandatze ahalegina da. Intsinis pinua zegoen tokian 2.600 hektarea birlandatu dituzte beste espezie batzuekin azken bi urteetan: cryptomeria japonica (koniferoa) da faboritua (1.156 hektarea) 2019tik 2020ra bitartean. Eta horri esker, lurraldeko baso-masa zuhaitziari eusten zaio, gutxienez. **Gipuzkoa da, hain zuzen ere, zuhaitz-azalera handiena duen euskal lurraldea: 121.600 hektarea: azalera osoaren % 61,5.**

Baina ez da nahikoa. **"Sektoreak administrazioen konzientzazioa eta babesa behar du, udaletatik hasita.** Baso-jarduera eta gure mendien kudeaketa sustatu behar dira, trabak kendu, hori baita irtenbide bideragarri bakarra. Gizarte guztia baita gure basoen osasun onaren onuradun", gaineratu du Berraondok.

Gipuzkoako Baso Elkartearen kalkuluen arabera, intsignis pinuaren banda marroiak Gipuzkoako baso-jabe guztiei eragindako **galerak 100 milioi eurotik gorakoak** izan dira azken urteotan.

Hostozabalak hazten ari dira: %50ean koniferoekin

Dena dela, txanda luze, ertain eta laburreko zuhaitz-espezie ugari dituen **lurralde anitza da Gipuzkoa da gaur egun. Koniferoen eta hostozabalen arteko oreka % 50era iristen da lehen aldiz denbora luzean.** Hostozabalen azalera gora egiten jarraitzen du, eta

koniferoenak, berriz, behera. Duela 25 urte, adibidez, hostozabalek lurraldearen % 40 hartzen zuten eta koniferoek % 60.

Pagoa (% 15) hostozabal hedatuena da, eta ondoren, haritz arrunta (% 7,5). Espezie autoktonoak dira biak eta bien artean lurraldeko zuhaitz-masaren % 22,5 hartzen dute. Intsinis edo radiata pinuaren ondoren, Pagoa da hedatuena dagoen espeziea. 1996an 17.581 hektarea pago zeuden, eta gaur egun 18.179, Hazik egin berri duen azken baso-maparen arabera (2021eko otsailean argitaratu da). Lurraldeko pagoen % 43 lurzoru publikoan daude, eta % 57 jabetza partikularretan.

Zuhaitzak autoen aurrean: CO2aren papera

Gipuzkoako zuhaitz-masak 900.000 tona CO2 baino gehiago xurgatzen ditu urtean, eta ezinbesteko tresna da klima-aldaketaren aurkako borrokan. Hau da, Gipuzkoako 121.600 hektareak lurraldeko isurketa guztien % 14 xurgatzen dute. Berotegi-efektuko 6,4 milioi tona gas igortzen ditugu atmosfera gipuzkoarrok urtero. Garraioak eta ibilgailuek soilik 2,62 milioi tona isurtzen dituzte (2018ko datuak). Beraz, egun ditugun zuhaitzen hirukoitza beharko litzateke gure ibilgailuek igortzen dutena arintzeko.

Nondik gatozen eta nora goazen

Gogoratu behar da lurraldeko zuhaitz-masaren % 80 jabetza pribatukoa dela eta partikularrek tira dutela gurditik urte hauetan guztietan. Inurrien lana da. **9.000 baso-jabe, 9.000 lorezain, gehienak lursail txikiak zaintzen, 9 hektareako batez besteko hedadurarekin.**

XX. mendearen hasieran, Gipuzkoako eta Bizkaiko baso-masak azaleraren % 25 hartzen zuen. Foru aldundiek mintegiak sortu zituzten espezieak entseatzeko eta entsegu-partzelak ezartzeko hainbat menditan. Hostozabalen artean, hiru haritz espezie entseatu ziren, autoktonoaz gain, zumarrak, ezkiak, bananondoak, intxaurreondoak, akaziak, lizarrak, astigarrak eta makalak. Koniferoen artean: hasiera batean gehien erabiltzen zen pinu basatia, larizio pinaster insignis, alertzeak, izeiak eta lawson altzifrea.

Laster ikusi zen insignis pinua zela ekimen pribatuari gehien interesatzen zitzaion espeziea, bere hazkunde eta erabilera industrial bizkorragatik, etekin ekonomiko handiekin. 1914ko aipamen bat dago, eta, horren arabera, 200 urteko pagoen salmenta 4 pta./unitate-tan ordaindu zen. Pagoak moztu eta zerrategira norik bere kabuz eramane behar zituen gainera. Aldi berean, 14 urteko pinu sorta baten truke 2 pezeta ordaindu zen unitateko.

Hau bezalako adibideek lagundu zuten landa-mundua pixkanaka konbentzitzen. Ordura arte, abeltzaintzarako eta larre irekietarako jorea nabarmena zegoen eta basoan oinarritutako baso-aprobetxamendua erabat marjinala eta osagarria zen.

40ko hamarkadatik aurrera, aldiz, II. Mundu-Gerraren ondorengo zuraren behararekin batera, birlandatze-ekintza areagotu zen, eta joera honek ere bultzada berri bat jaso zuen 1956ko otsaileko izozteen ondoren. Izozte haiek intsinis pinuen populazio gazte gehienak suntsitu zituzten. Gertaera hau galga izan zen pinuarentzat eta Korsikako larizio pinua, Japoniako alertzea edo Douglas izeia bezalako espezieak ekarri ziren dibersifikatzeko, zurak merkatuan lortu zuen prezioa zela eta.

Baso-jabeak, adoregabetu beharrean, birlandatze-ekintza gogorrago bati ekin zion, garapen industrialarekin batera. Ondorioz, ordura arte larreak edo laboreak ziren azalera handiak utzi zituzten.

Pinuaren banda marroia eta beste hainbat izurrite

Nahiz eta etengabe atzera egiten ari den, intsinis pinuak Gipuzkoan azalera handiena hartzen du oraindik. Hazik emandako datuen arabera, zutik geratzen diren intsinis 30.100 hektareatik **% 50 inguru banda marroiaren onddo eragilearen eraginpean daude**, eta gainerakoak aske edo afekzio arinarekin. Hori dela eta, **azken bi urteetan ez da hektarea bat ere landatu lurraldean**, oraindik ez baitugu banako erresistentetik. Intsinis pinu helduen azaleraren beherakada nabaria da.

Eraitza bikainak ikusten ari gara Neikerrek oxido kuprosoarekin egindako tratamenduan. Zuhaitz tratatuen eta tratatu gabeen arteko alde ikaragarria ikusten dugu. Berdea edo marroia. Eta ezin dugu ezer egin, Gobernu zentralak ez baitu tratamendu horretarako baimenik ematen eta Euskadikoak ez baitu jarrera argirik agertzen.

Produktu naturalekin ere esperimentatzen ari dira eta emaitza onekin. Baina denbora aurrera doa eta intsinis pinu masek, euskal industria horretara egokituta dagoen espezieak, egoera larrian jarraitzen dute.

Gaur egun, lizarrei ere eraso egiten die txalara izeneko onddo batek Europako iparraldean lizarrak ia erabat desagertu arazi ditu; Eurasiatik dator eta gure inguruan dago jada. Ez du sendabiderik.

Baina onddoen erasoak ez da fenomeno isolatu bat. **Zuhaitz guztiek jasaten dituzte onddo eraso ziklikoak**. Adibidez, XIX. mendearen

azken herenean eta XX. mendearen lehenean, gaztainondoaren tintaren gaixotasunak, ondoren txankroarekin jarraituz, ia gaztainondoekin amaitu zuena; haritza ere ez zen salbatu oidioaren erasotik. Joan den mendean beste infekzio bat gertatu zen, grafiosia, zumar gehienak suntsitu zituen, nahiz eta gaur egun erresistenteak diruditen. Duela 20 bat urte, fusarium eraso bat izan zen intsinis pinuen gainean. Larizio pinuek banda gorria dute, Douglas izeiek suitzar roya, etab.

Pinuaren alternatibak: eukalipto gutxi Gipuzkoan

Azken lau hamarkadetan, eukaliptoak Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) sartu da errentagarritasun handiagoa duelako. Hasieran globulus espeziea. Baina honek ez du izozterik jasaten eta, horregatik, kostalde inguruan kokatzen da soilik. Duela gutxi, nitensak protagonismo handiagoa hartu du, izozteak jasaten baititu eta bere habitata intsinis pinuarekin bateragarria delako. **Eukaliptoak landaketa basoan landatzen da soilik, inoiz ez baso autoktonoan.** 500-700 hektareako azalera hazten ari dira urtean Euskadin, baina Gipuzkoan presentzia txikia dute.

Eukaliptoek 1.214 hektarea hartzen dituzte Gipuzkoan, zuhaitz-masaren % 1 besterik ez. Euskadin, aldiz, 23.300 hektarea daude, zuhaitz-masaren % 5,9, eta nagusiki Bizkaian kontzentratzen dira. Zura oso preziatua da eta **kalitatezko papera egiteko erabiltzen da: folioak, eskuoihalak, pixoihalak eta osasun-erabilerako ehunak, maskarak,** besteak beste, bai eta arotzerian ere.

Antzinako pinudietan birlandatzen ari diren espezieetako bat da, kryptomeria, sekua, itsas pinua eta Douglas izeiarekin batera. Halaber, azken bi urteetan 116 hektarea pinudi egon dira, baso-azalera gisa deskatalogatu direnak eta erabilera aldatu dutenak.

Horien guztien artean, **cryptomeria da, alde handiz, harrera handiena izaten ari den espeziea.** Bi urtetan soilik, espezie honek 1.156 hektarea pinudi ordezkatu ditu eta lau urte daramatza gehien landatzen den zuhaitza izaten. Gaur egun 1.606 hektarea daude Gipuzkoan.

Azkenik, uste dugu basogintzak egiten duen ekarpena ez dela behar beste baloratzen, bai ekonomiaren, gizartearen zein ingurumenaren ikuspegitik. Sektoreak lurraldeko Barne Produktu Gordinaren (BPG) % 1,5eko ekarpena egiten du eta hamaika onura ekosistemiko ere. Eta kudeaketa da, abandonuari aurre eginez, ondare hori zaintzeko bidea.